# Erregistratutako langabeziak behera egin du berriro

Euskadik maiatzean langabeziaren beheranzko ibilbidea luzatu zuen , 103.773 pertsona erregistratu baitziren Lanbiden, 2008tik hilabete horretarako izan den kopururik txikiena. Urte arteko datuei dagokienez, langabezia %0,9 jaitsi zen, hau da, 926 pertsona gutxiago daude langabezian, eta urte hasieran hasitako bilakaera positiboari eutsi zaio. Enpleguaren aurrerapen horrekin batera, kontratazioak bizitasun handiagoa izan zuen: maiatzean 65.806 kontratu sinatu ziren, 2025eko hilabete berean baino %6,5 gehiago, horietatik %24,7 mugagabeak izanik. Oro har, emaitzek erakusten dute lan egoera sendotzen ari dela, enplegu adierazleak etengabe hobetzen ari direla eta, pixkanaka, kontratazio egonkorrago eta kalitate handiagoko baterantz egiten ari dela.

## LANGABEZIA ERREGISTRATUA. GUZTIRA

Urte arteko aldakuntza tasa




**LANGABEZIA ERREGISTRATUA. MAIATZA**

**-%0,9**

## LANGABEZIA ERREGIST. EMAKUMEAK

Urte arteko aldakuntza tasa




## LANGABEZIA ERREGISTRATUA. GIZONAK

Urte arteko aldakuntza tasa



## Langabezia. Gazteak

Urte arteko aldakuntza tasa




## Langabezia. Atzerritarrak

Urte arteko aldakuntza tasa




Urte arteko datuei dagokienez, langabezia gehiago jaitsi zen gizonen artean (-%1,6) emakumeen artean baino (-%0,4). Nabarmentzekoa da 25 urtetik beherakoen artean izandako beherakada (-%3,6), bilakaera positiboa izan baitu martxotik. Adinekoen artean, berriz, beherakada apalagoa izan da (-%0,8). Sektoreei dagokienez, oro har, langabeziak behera egin du, bereziki eraikuntzan (-%4,2) 229 pertsona gutxiago; industriak, berriz, % 0,6 egin du gora, 58 pertsona gehiago. Biztanleria atzerritarraren langabezia %2,5 hazi zen, lehenago lan egin ez dutenena bezala(%1,5).

### Langabeak

| | 2025eko maiatza | 2026ko maiatza | Aldakuntza |
|---|---|---|---|
| **LANGABEAK GUZTIRA** | **104.659** | **103.733** | **-926** |
| LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA | | | |
| Araba | 18.168 | 17.561 | -607 |
| Bizkaia | 58.743 | 58.709 | -34 |
| Gipuzkoa | 27.748 | 27.463 | -285 |
| SEXU ETA ADINAREN ARABERA | | | |
| Gizonak | 44.237 | 43.543 | -694 |
| Emakumeak | 60.422 | 60.190 | -232 |
| 25 urtetik beherakoak | 9.210 | 8.883 | -327 |
| 25 urte baino gehiago dutenak | 95.449 | 94.850 | -599 |
| EKONOMIA SEKTOREAREN ARABERA | | | |
| Lehen arloa | 1.861 | 1.750 | -111 |
| Industria | 10.032 | 10.090 | 58 |
| Eraikuntza | 5.480 | 5.251 | -229 |
| Zerbitzuak | 72.782 | 71.915 | -867 |
| Lehenago lan egin dutenak | 90.155 | 89.006 | -1.149 |
| Lehenago lan egin ez dutenak | 14.504 | 14.727 | 223 |
| ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA. ATZERRITARRAK | | | |
| Langabe atzerritarrak | 20.390 | 20.899 | 509 |

Iturria: SEPE.